

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

2.500 pertsonak eman dute izena etxebizitza babestuak lortzeko eskatzaileen errolda berrian

Gainera, 1.750 pertsonak aurrez hitzordua hartu dute maiatzean izena emateko

Viernes, 29 de abril de 2011

2.500 pertsonak eman dute izena etxebizitza babestuak lortzeko eskatzaileen errolda berrian, joan den apirilaren 4an epea ireki zenetik. Gainera, beste 1.750 pertsonak aurrez hitzordua hartu dute maiatzean erroldan izena emateko. Aurrez hitzordua hartzeko prozesuan nahiz Internet bidez eta aurrez aurre izen emateko orduan ez da gorabeherarik izan.

Gogorarazi behar da, etxebizitza babestu bat lortzeko eskaera egin nahi dutenek Internet bidez (www.vivienda.navarra.es webgunean) eta aurrez aurre eman dezaketela izena. Izena aurrez aurre emateko, lehenago hitzordua hartu behar da 012 telefonora deituz, www.vivienda.navarra.es webgunean edo Iruñeko (Orreaga etorbidea, 11) eta Tuterako (Foruen Plaza, 5-6) Infonavarraren bulegoetan. Aurrez hitzordua eskatzen dutenek Iruñeko VINSAREN bulegoetan (San Jorge etorbidea, 8, beheko solairua) edo Tuterako Infonavarraren bulegoan eman ahal izango dute izena.

Izena emateko prozesua etengabe dago zabalik eta ez du amaiera eperik, hortaz, herritarrek egoki jotzen dutenean eman ahal izango dute izena. Halere, maiatzeko ia lehen bi asteak beteta daude dagoeneko, lehendik hitzordua eskatu dutenak han izango direlako izen ematen. Hortaz, izena eman nahi dutenek maiatzeko hirugarren asterako hartu beharko dute ordua. Datorren ekainaren 1ean esleituko dira lehenengo etxebizitzak. Horregatik, lehen esleipen horretan parte hartu nahi dutenek egun hori baino lehenago eman behar dute izena.

Nafarroako etxebizitza babestu bat aukeratzeko modu bakarra erroldan izena ematea da. Errolda hori aplikatuta, orain arte promozioak esleitzeko egiten ziren kanpaina publikoak kenduko dira. Une honetatik aurrera, saltzeko eta errentan emateko babes ofizialeko eta prezioa tasatuta duten etxebizitzak (sustatzaile publiko, VINSAN, edo pribatuenak) errolda bakar horren arabera esleituko dira lau egun zehatz hauetan: ekainaren 1ean, irailaren 1ean, abenduaren 1ean eta martxoaren 1ean.